



LIBURUA

Amaia Ezpeldoiren azkena



DANI BLANCO

EURI ZITALARI ESKER

ITXARO BORDA

SUSA

AMAIA ALVAREZ URIA

Susak argitaratu duen seigarren eta azken abentura du honako hau Amaia Ezpeldoik. Izan ere, erretiroa hartzea erabaki du, Joana Garralda, bere maitalearekin, Atharratzeko base-ri batean “baratzea, ogia eta amodioa” egitera joateko.

Hertzainak musika taldearen kantua erabiliz izendatu zuen Itxaro Bordak landa eremuko detektibe honen lehen liburua, (*Bakean ützi arte*, 1994), eta Itoizen kantu batean ardaztu duen lana izango da bildumari amaiera emango diona (*Euri zitalari esker*, 2021). Bien artean *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baino* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), eta *Boga boga* (2012) argitaratu ditu.

Danele Sarriugartek egileari berriki ARGIArako egindako elkarrizketan

irakur daitekeenez, detektibe noblek aukera ematen dute kritika soziala egiteko eta hori egiten du Bordak bilduma honekin, liburu bakoitzak salaketa bat eta garaiko argazki bat biltzen dituelako. Oraingoak sexua, biolentzia eta familia ukituko ditu; generoa, klasea, arraza eta beste zapalketa batzuk gurutzatuko dira pertsonaietan, botere harremanak eta horien ondorioak mahai gainean ipiniz.

Bildumaren hasieran bakardadea eta malenkonian nagusitzen baziren, azkenekoetan armairutik irten eta komunitatearen parte bihurtu ostean, zoriontasuna eta lagunartea topatuko ditu protagonistak. Gainera, azken lan honetan aurreko lanetako kasuak, lekuak eta pertsonaiak agertuko zaizkigu, gaztaro-ko eta helduaroko errepasoa eginez eta zahartzarorako prestatuz.

Euskalki guztiak agertu dira bilduman, hasieran banaka eta amaieran “euskara post-batura helduz” egilearen hitzetan. Literaturak hizkuntza du lehengai, eta euskal literatura garaikidean gutxi dira hizkuntzarekin hain erraz eta emankor jostatzen diren sortzaileak: berba zahar (‘egari’) eta berriak (‘gugeltu’) topatuko ditugu orriotan, hizkuntza-aldaerak, eta hitz joko ugari.

Bidaia eta nomadismoa ere oso presente egon dira, eta lokalaren eta globalaren arteko uztardura jolastia, besteak beste, *Twin Peaks* eta Pier Paul Berzaitz aurkituko ditugu kapituluetan barna; euskal baladen oihartzunarekin batera, Landetarako joan-etorria egingo dugu. Eta orain zer gertatuko da euskal detektibe literario honekin? Agian bilduman oinarritutako telesail bat... ●